

## **BANDOA**

### **TXAKURREN KAKAK**

Orain arte herriaren itxurea hobatzeko pausuak emon badoguz be, azken asteetan, kaleetan gero eta txakur kaka gehiago topatzen gabilz. Alkarregaz biziteko, orokorrean herritar guztiei eta, batez be txakur jabeei txakurrakaz bete behar diran gitxieneko arauak gogorarazten deusueguz:

- Txakurren kakak batu.
- Txakurra lotuta eroan eta, arriskutsua izan daitekeen arrazakoa bada, muturrekoa ipini.
- Txakurra erregistratuta egon behar da.

Udaltzaingoak arauen betetearen jarraipen zehatza egingo dau eta, bete ezean, isunak jarriko dauz (200 eurotik gorakoak).

Danon artean mantendu daigun garbi gure herria!

### **ALTZARIAK KALEAN**

Azken asteetan gero eta altzari gehiago dago kaleetan. Altzariak eta hondakin handiak batzeko KOOPERA enpreseari abisua emon behar jako. Horretarako, telefono zenbaki honetara deitu behar da:

**KOOPERA – Tel.: 94 612 11 77**

Hondakin horreek astero, martitzenetan atara eta eguaztenetan batzen dira. Beste egun batean edo esandako lekutik kanpo ixten badira, isuna 500€-koa izan daiteke.

Danon artean mantendu daigun garbi gure herria!

Bermeon, 2016ko uztailaren 21ean

ALKATEA

\*Gaztelaniazko bandoa ikusgai dago Gizarte eta Kultura Etxeko iragarki tauletan eta [www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus) web gunean.

El Bando en castellano puede consultarse en los tablonos de la Casa de Cultura y en la página web [www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus)